



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2022/03/22an EGINDAKO OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 22/03/2022 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2022/03/22an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Ander Errarte del Pozo eta Nestor Arana Arexolaleiba.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 22/03/2022 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Ander Errarte del Pozo y Nestor Arana Arexolaleiba.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAACDYNT.Wa9Q>

Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria
2022/03/22

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2022ko otsailaren 22an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2022ko otsailaren 15etik 2022ko martxoaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Jakinarazi da martxoaren 31n ezohiko osoko bilkura egongo dela 2021eko aurrekontuaren likidazioari buruzko gaiak aztertzeko.

3.- GIPUZKOAKO BIDE BERDEAK SUSTATZEKO ETA GARATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PROIEKTUARI ATXIKIMENDUA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Gipuzkoako lurraldean hiru bide berde berreskuratzeko aurkeztutako obra-proiektuari buruz Ekonomiaren Garapeneko informazio-batzordeak egindako irizpena aztertu da. Horien artean dago Vasco-Navarro Bide Berdea (Eskoriatza eta Arabako mugaren artean Vasco-Navarro trenbide zaharraren ibilbidea aisialdirako erabiltzeko leheneratze-proiektua).

Kontuan izanik proiektu horrek Gipuzkoara turismoa erakartzeko lurralde kohesioa indartuko duela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

“Gipuzkoako Bide Berdeak” sustatzeko eta garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Proiektuari babesa erakustea.

ESANDAKOAK:

Eluska Irazuk, EH Bilduren ordezkari gisa, esan du batzordean babesa agertu zutela eta hemen ere egingo dutela, baina ez daudela ados txostena gaztelaniaz bakarrik bidaltzearekin. Gaineratu du, Foru Aldundiak idatzi eta udal batzuei zuzendutako dokumentua denez, euskaraz ere idatzi eta bidali behar zela, hemen bi baitira hizkuntza ofizialak, eta Espainiako Gobernuan aurkeztu beharreko dokumentua dela esatea ez dela onargarria aitzakia gisa. Kexa amaitzeko, testua astebeteko epean euskaraz ere jasoko duten esperantza adierazi du.

Alkateak erantzun dio ezin duela ziurtatu hala izango denik, bere garaian kexa hori aurkeztu zela, baina ez zutela ezer egiteko konpromisorik hartu.

4.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria
2022/03/22

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 22 de febrero de 2022. .

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas desde el día 15 de febrero de 2022 al 15 de marzo de 2022.

Se informa que el próximo 31 de marzo habrá un pleno extraordinario para tratar asuntos derivados de la liquidación del presupuesto 2021.

3.- APOYO AL PROYECTO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA PARA EL IMPULSO Y DESARROLLO DE LAS “VIAS VERDES DE GIPUZKOA”.

Visto el dictamen que eleva la comisión informativa de Desarrollo Económico en relación al Proyecto de Obras presentado por el Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la recuperación de tres vías verdes en el territorio guipuzcoano, entre las que se encuentra la Vía Verde Vasco-Navarro (proyecto de recuperación para el uso recreativo del trazado del antigua ferrocarril Vasco-Navarro entre Eskoriatza el límite con Alava), y

Considerando que dicho proyecto contribuirá en el fortalecimiento de la cohesión territorial del destino turístico de Gipuzkoa, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

Mostrar su apoyo al Proyecto de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el impuso y desarrollo de las “Vías Verdes de Gipuzkoa”

INTERVENCIONES :

Eluska Irazu, en representación de EH BILDU, dice que en la comisión mostraron su apoyo y que aquí también lo harán, pero que no están de acuerdo con que el informe se haya remitido solo en castellano. Añade que, siendo como es un documento redactado por la Diputación Foral y dirigido a una serie de ayuntamientos, debiera de haber sido redactado y remitido también en euskera ya que aquí son dos las lenguas oficiales, nos siendo admisible como excusa el decir que es porque es un documento a presentar en el gobierno de España. Termina su queja mostrando la confianza de que remitan el texto también en euskera dentro del plazo de una semana.

El Alcalde le responde que él no puede asegurar que sea así, que en su día ya se presentó esa queja pero que no se comprometieron a nada.

4.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:10 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria
2022/03/22